DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Gizarte Ekintza
Acción Social
Urdaneta, 13 | Tel. 943481400 | www.donostia.eus
20006 Donostia / San Sebastián

# GIZARTE EKINTZAKO KONTSEILU SEKTORIALA
# CONSEJO SECTORIAL DE ACCIÓN SOCIAL

## BILERA-AGIRIA / ACTA

| | |
|---|---|
| **EGUNA / DÍA:** | 2019ko Apirilak 26 |
| **ORDUA / HORA:** | 11:00 h. |
| **LEKUA / LUGAR:** | Donostiako Udaleko Pleno Aretoan- Salón de Plenos del Ayuntamiento de Donostia |
| **BATZAR MOTA / SESIÓN:** | Ohikoa - Ordinaria |

## BERTARATUTAKOAK / ASISTENTES:

AFAGI
ASADE ELKARTEA
ARANSGI
ATECE Gipuzkoa
AVAIM
Gipuzkoako EPILEPSIA ELKARTEA
DONOSTIAKO CARITAS
Gipuzkoako Gizarte Langintzaren Elkargo Ofiziala / Colegio Oficial de Trabajo Social G. - Mª Rosa Ugalde
GURUTZE GORRIA
ELKARTU
GENE ELKARTEA
HELDUEN HITZA
HURKOA FUNDAZIOA
NAGUSILAN
OSAKIDETZA DONOSTIALDEA
SARGI
EH BILDU
LEHENDAKARITZA
IDAZKARIAREN ordezkoa
Gizarte Ekintzaren Zuzendaritza / Dirección de Bienestar Social
*Donostia Lagunkoia* programaren koordinatzailea eta arduraduna

## ESAN-EGINAK / DESARROLLO DE LA REUNIÓN

| | |
|---|---|
| **1.- Aurreko bilerako aktaren irakurketa, zuzenketak eta egokia izanez gero, onarpena**<br><br>Eragozpenik gabe, akta onartzen da. | **1.- Lectura del acta de la reunión anterior, rectificación y si procede, su aprobación**<br><br>Es aprobada el acta sin ninguna objeción. |
| **2.- *Zaintzen proiektua*, Berdintasunak Elkartea sustatua**<br><br>*Mª Eugenia Pardok,* ASADE Elkarteko ordezkariak gaia aurkeztu du eta "zaintzaren eremuko aldarrikapenak" adierazpena irakurri du.<br><br>Bere azalpenean gai hauek aztertzen ditu:<br><br>- Zaintzaren lana ikusgai bihurtu eta garrantzia eman, bai familiaren eremuan bai eremu publikoan. | **2.- *Proyecto de Cuidados* liderado por Berdintasuna**<br><br>*M.ª Eugenia Pardo*, en representación de la Asociación ASADE presenta el tema y procede a la lectura del manifiesto de "reivindicaciones en el ámbito de los cuidados".<br>Realiza una breve exposición centrada en los siguientes puntos:<br>- Visibilizar y poner en valor el trabajo de los Cuidados, tanto en el ámbito familiar como en el público. |

| | |
|---|---|
| - Zaintzailearen profila zehaztu.<br>- Bai zaintzaileentzat baita zaindua den pertsonarentzat baldintza duinak aldarrikatu (trebakuntza, kontratua, soldata, etab.)<br>- Lan alderdi honen bidezko arauketa langile guztiak babestuak ikus daitezen.<br><br>- Emakume langileen eskubideen urratzea ikusgai bihurtu.<br>- Eremu pribatuan lan baldintza duinak.<br><br>Urrian, zaintza sistemarekin loturiko ***gogoeta jardunaldiak*** egingo direla adierazi du.<br><br>*Aitziber San Romanek* informazio aldez aurretik jasotzea eskatzen du, Kontseiluko kide guztiei bidali ahal izateko.<br><br>*Antton Elosegik (AFAGI)* dio aurkezpenean alderdi kontrajarriak sumatu dituela eta hau dela eta, aldarrikapenaren benetako helburua zein den ulertzea zaila dela.<br><br>*Mº Eugenia Pardok (ASADE)* dio, beste helburuen artean, aldarrikapenak lortu nahi duena emakumeen zapalketa zaintzaren eremuan ikusaraztea dela eta gizarteak berak aldarrikatu beharreko gaiak direla pertsonen zaintzaren arlora modu egokian hurbiltzeko. Gizarteak, zainduak izan nahi dugun moduaz, nork zaindu eta zein eratan nahi dugun zainduak izateari buruzko gogoeta egin behar du, bai maila publikoan bai famili ingurunean, zaintza duina lortzeko.<br><br>Gaia aztertu ondoren hurrengo puntuarekin jarraitzen da.<br><br>**3.- 2018. urteko memoriaren aurkezpena**<br><br>*Tere Barrenetxeak* Gizarte Ekintzaren Zuzendaritzaren urteko memoriaren aurkezpena egin du. Aurkezpena puntu hauetan gauzatzen da:<br><br>- Hiritarrei arreta<br>- Lehen mailako arreta (Gizarte zerbitzuguneak)<br>- Laguntza ekonomikoak<br>- Adineko pertsonak etxean<br>- Adineko pertsonak ostatu zerbitzuetan<br>- Adineko pertsonen parte-hartze sozialerako laguntza (Jubilatuen elkarteak, Plus 55 programa eta Topalekua)<br>- Adin txikikoen esku-hartzea<br>- Genero indarkeriaren biktima diren emakumeen esku-hartzea | - Definir el perfil del cuidador/a.<br>- Reivindicar condiciones dignas tanto para el/la cuidador/a como para la persona que recibe los cuidados (formación, contrato,salarios, etc).<br>- Una regulación justa de este sector laboral para que todos/as los trabajadores/as se vean respaldados.<br>- Visibilizar la vulneración de los derechos de las mujeres trabajadoras.<br>- Condiciones laborales dignas en el sector privado.<br><br>Comunica la celebración en Octubre de unas ***jornadas de reflexión*** en relación al sistema de cuidados.<br><br>*Aitziber San Román* solicita recibir con antelación la información acerca de las jornadas para poder enviarla a los componentes del Consejo.<br><br>*Antton Elosegi (AFAGI)*, comenta que percibe apreciaciones contradictorias en la exposición que dificulta comprender realmente cuál es el objetivo de estas reivindicaciones.<br><br>*M.ª Eugenia Pardo,* comenta que, entre otros objetivos, se busca visibilizar la explotación de la mujer en el ámbito de los cuidados y que son reivindicaciones que la propia sociedad tiene que hacer para poder abordar correctamente el cuidado de las personas. La sociedad debe hacer una reflexión acerca de cómo queremos ser cuidados, por quién y de qué forma, tanto a nivel público como dentro del ámbito familiar para obtener como resultado un cuidado digno.<br><br>Una vez tratado el tema se procede a desarrollar el siguiente punto.<br><br>**3.- Presentación de la memoria 2018 del área de Acción Social**<br><br>*Tere Barrenetxea* realiza la exposición de la memoria anual del área de Acción Social que se centra en los siguientes puntos:<br><br>- Atención al ciudadano<br>- Atención primaria ( Centros de Servicios Sociales )<br>- Prestaciones económicas<br>- Atención de personas mayores en domicilio<br>- Alojamiento para personas mayores<br>- Apoyo a la participación social de personas mayores (Asociación de Jubilados, programa Plus 55 y Topalekua )<br>- Intervención con menores en desprotección<br>- Intervención con mujeres víctimas de violencia de género |

| | |
|---|---|
| - Gizarte larrialdien arreta<br>- Etxerik gabeko pertsonen arreta<br>- Bazterketa arriskuan dauden pertsonen gizarteratzea: tailerrak<br>- Gizarte arloko elkarteekin elkarlana<br>- Inbertsioak<br>- Aurrekontuak : hainbat urteko bilakaera<br>- 2018ko aurrekontuaren exekuzioa<br>- 2018ko helburuak<br>- 2019ko helburuak | - Atención a la urgencia social<br>- Atención a personas sin techo<br>- Inserción de personas en riesgo de exclusión: talleres<br>- Colaboración con asociaciones del ámbito social<br>- Inversiones<br>- Presupuestos : evolución interanual<br>- Ejecución del presupuesto 2018<br>- Objetivos 2018<br>- Objetivos 2019 |
| Aurkezpena bukatzeko, *Tere Barrenetxeak* adierazten du memoriaren dokumentua Gizarte Ekintzaren Zuzendaritzak egindako lana eta aurrekontuen informazioa herritarrei eta udaletxeko beste departamentuei eskuratzeko prestatzen dela gehienbat.<br><br>Aurkezpena bukatzeko, Zaldua jaunaren laguntza eskertzen du eta bere ekarpenak aurkezpenean kontuan hartu izan direla adierazten du. | *Tere Barrenetxea* completa la exposición puntualizando que, la memoria es un documento elaborado principalmente para poder acercar a la ciudadanía, al Consejo y a otros departamentos del propio ayuntamiento el trabajo realizado durante el año y los presupuestos desarrollados, así como las previsiones para el año 2019.<br>También agradece la colaboración de Jesús M.ª Zaldua por sus aportaciones, las cuales se han incluido en la presentación. |
| *Mª Eugenia Pardok* dio etxez etxeko laguntza arloan langile kopuruaren gorakada azaltzen dela baina hori ez dela egia .<br><br>Mª Eugeniak dio , laguntzaren prezio publikoa erregularizatu zenetik kasu batzuetan ordaindu beharreko prezioa %100ean igo dela. | *M.ª Eugenia Pardo,* comenta que, en el apartado de la ayuda domiciliaria se hace referencia a un aumento del número de trabajadores que considera no es real .<br>También comenta que, al regularizar el precio público de la asistencia ha habido algunos casos en los que el precio a pagar ha aumentado en un 100%. |
| *Aitziber San Romanek* gogoratzen du ordaindu behar den ekarpena sarreren araberako tauletan oinarritura dagoela, eta hau dela eta, oso zaila dela ekarpena %100ean igotzea. Kasu zehatzei buruzko galderak bakoitzari dagokion gizarte-langilearen aurrean galdetzea dela egokiena. | *Aitziber San Román* recuerda que la aportación del solicitante se determina mediante unas tablas por ingresos que se dividen por tramos y que es muy difícil que la aportación haya aumentado en un 100%. Comenta que estas cuestiones concretas es mejor plantearlas a la trabajadora social de referencia. |
| *Raquel Barrosok (ELKARTU),* Alde Zaharreko Jubilatuen lokala (Kai Alde) ez dela irisgarria eta egokitzapen-lan horiek noiz egingo diren galdetu du. | *Raquel Barroso (ELKARTU),* en relación a la accesibilidad del Hogar del Jubilado de la Parte Vieja (Kai Alde) pregunta cuándo va a ser posible adaptar el edificio. |
| *Aitziber San Romanek* dio lokala elkartearena dela eta hori dela eta, gai zaila dela Udalak ezin baitu inbertsiorik egin partikularrenak diren lokaletan. Hala ere, udala elkartearekin hitz egiten da irtenbide baten bila, baina oraindik ez dago itxita. | *Aitziber San Román* comenta que, el local pertenece a la asociación y por ello, el asunto se presenta algo más complejo, puesto que el Ayto. no puede realizar inversiones en locales de particulares. Pero, se está hablando con la asociación para intentar solventar este problema, aunque no hay nada cerrado. |
| *Elena Luquinek (GURUTZE GORRIA)* memorian azaldutako datu batekin lotutako galdera bat egiten du, zehazki, etxerik gabeko familien arretarekin lotuta. Terek dio puntu zehatz horretan “familia” hitzak “bizikidetasun unitatea” adierazten duela. | *Elena Luquin (CRUZ ROJA)* hace una consulta en relación a los datos aportados en la presentación sobre el número de familias sin hogar atendidas. Tere expone que en ese punto concreto la palabra “familia” hace referencia a la “Unidad Convivencial”. |
| Aurkezpenaren artxiboa Kontseiluko bazkide guztiei bidaltzea erabakit da eta laister 2018ko memoria Gizarte Ekintzako web gunera igoko dela adierazi | Se acuerda enviar a todos los componentes del Consejo el archivo de la presentación de la memoria |

da.

Galdera gehiago ez dagoela ikusirik. Aitziber San Romanek Tereri memoriaren garapenerako egindako lana eskertzen dio eta ondoren ***Donostia Lagunkoia*** programaren koordinatzailea aurkezten du, Eva Salaberria. Hurrengo puntuaren azalpena egingo du :

**4.- LKALEAK proiektuari buruzko informazioa**

*Eva Salaberria,* ***Donostia Lagunkoia***ren koordinatzaileak Egia auzoan egin den proiektuaren azalpena egin du.

Proiektuaren funtsa komunitatea inplikatzea da pertsona zaurgarriak gizarteratzea lortzeko. Pertsona zaurgarri horiek askotan adinekoak izaten dira. Pertsona zaurgarri horien profila zagutu eta pertsona horiek komunitatean birgizartera daitezen konfidantzazko inguruneak sortzea da xedea.

Lkaleak proiektuaren bidez komunitate mailan ikerketa lan garrantzitsua egiten da. Ikerketa horren helburua pertsona zaurgarrien benetazko egoera eta pertsona ahularekiko, zaintza eta laguntasun arlotan komunitatearen benetazko egoera ezagutzeko zenbait informazioa jasotzea da, esate baterako, komunitatearen parte-hartzea, pribatutasunaren mugak, komunitatea osatzen duten kolektiboen erantzuna eta beste zenbait alderdi esanguratsu. Ikerketa lanak, Egia auzoan martxan jarri den giza dinamizazioarekin bat egiten du.

Aurkezpenean gai hauek aipatu dira:

- Pertsona ahula prozesuaren subjektu aktibo bezala kontuan hartu.

-“Parte izatea”ren sentimenduan sakondu.

- Elkarrekiko kontzeptua: eman eta jaso.

- Merkataritza, liburutegiak etab.ek izan behar duten inplikazioaz hitz egin.

- Gizataldeen arteko loturak bilatu informazioa partekatzeko eta komunitatearen ezagutza hobetzeko.

- Komunitatearen papera prozesuan.

- Berrikuntzaren garrantzia pertsona zaurgarrien arretarako sareak sortzeko.

y se confirma que en breve se colgará la memoria 2018 en la página web del departamento.

Sin más preguntas, Aitziber San Román agradece a Tere el trabajo realizado en el desarrollo de la memoria y presenta a la coordinadora del programa ***Donostia Lagunkoia*** , Eva Salaberria , que realiza la exposición del siguiente punto:

**4.- Información sobre el proyecto LKALEAK**

*Eva Salaberria,* coordinadora del programa ***Donostia Lagunkoia*** realiza la exposición del proyecto LKALEAK que se ha desarrollado en el barrio de Egia.

El proyecto busca la implicación de la comunidad para la inclusión social de las personas con fragilidad, siendo éstas principalmente personas mayores. Identificar los perfiles de fragilidad y generar entornos de confianza que permitan la reintegración de estas personas en la comunidad.

Mediante el proyecto Lkaleak se desarrolla un importante trabajo de investigación a nivel comunitario con el fin de conocer la situación real de las personas frágiles y otros aspectos como la implicación de la comunidad, los límites de la privacidad, la respuesta de los distintos colectivos que componen la comunidad y muchos otros aspectos primordiales para el conocimiento real de la situación de la comunidad en relación al cuidado y al apoyo a las personas frágiles. Este trabajo de investigación acompaña a la puesta en marcha real del proyecto de dinamización social entre los habitantes del barrio de Egia.

En la presentación se exponen distintos temas:

- Consideración de la persona frágil como sujeto activo del proceso.

- Profundización en el sentimiento de “formar parte de”.

- Concepto de reciprocidad : dar y recibir.

- Debate sobre qué nivel de implicación deben alcanzar los comercios, las bibliotecas…

- Búsqueda de conexión entre colectivos para compartir información y mejorar el conocimiento de la comunidad.

- Papel de la comunidad en el proceso.

- Importancia de la innovación para tejer redes para

| | |
|---|---|
| - "Ekintza sorgune" berriak sortzeko bidea landu beste sorguneak jaio daitezen eta berriz, beste auzoetan ekintza sareak ager daitezen. | la atención a las situaciones de fragilidad.<br><br>- Cómo propiciar el nacimiento de "focos" de actividad que puedan ir generando a su vez otros focos y creando redes de actividad por todos los barrios. |
| - Pertsona guztiak orokorrean eta pertsona zaurgarriak zehazki komunitatean birgizarteratzeko elementu komunitario traktoreen sorkundea bultzatu. | - Cómo impulsar la generación de elementos comunitarios tractores que sean capaces de incorporar a la comunidad a las personas en general y a las más frágiles en particular. |
| - Eragile pribatu eta publikoen arteko gizarte ekintzako politika zehatza eraiki komunitate bilakaeraren garapena bultzatu eta ziurtatzeko. | - Cómo construir una política de acción comunitaria entre agentes públicos y privados capaz de apoyar y garantizar el desarrollo de esta evolución comunitaria. |
| Aurkezpena bukatu ondoren, *Jose Ignacio del Pozok (HURKOA)* hitz egiten du, programaren arduradunak zorionduz eta zehazki adineko zenbat pertsonek parte hartu duten galdetuz.. | Finalizada la exposición, *Jose Ignacio del Pozo (HURKOA)* toma la palabra, felicita a las responsables por el programa y pregunta cuál ha sido el alcance de la participación de las personas mayores. |
| *Eva Salaberriak* azaldu du, hasieran adineko 6 pertsona hasi zirela baina orain parte hartzen duten adineko finkoak 15-20 direla eta beste askok noizean behin parte hartzen dutela. Esaten duenez, hurrengo erronka pertsona eta giza eragile gehiagoren parte-hartzea lortzea dela, programaren garapenerako sare egonkor bat lortzeko. | *Eva Salaberria* responde que empezaron siendo 6 personas en situación de fragilidad y que ahora ya participan cerca de 15-20 personas estables, habiendo también u importante número de personas que participan puntualmente. Comenta que, el siguiente reto es llegar a más gente, involucrar a más agentes y conseguir una red estable como base para el continuo desarrollo del programa. |
| Gaur egun, Donostia Lagunkoiak beste auzo batzuen egoera aztertzen ari da ekintza sorgune berrientzako kokapenen bila. | En la actualidad, Donostia Lagunkoia está testando posibles nuevos puntos en los que puedan nacer nuevos focos de participación. |
| **5.- Bakardadeari buruzko lantaldearen sorreraz eta lehen bileraz informatu** | **5.- Información sobre la creación y primera reunión del grupo "soledad"** |
| *Aitziber San Romanek* gogoratzen du aurreko bileran adostu zela bakardadeari buruz lan mahai bat sortzea eta helburuak ezartzea. Elkarte batzuk hitzeman dute jada mahaian parte hartzeko. | *Aitziber San Román* recuerda que en la reunión anterior se planteó constituir una mesa de trabajo que trate el tema de la soledad en las personas mayores y establezca objetivos. Informa de que ya ha habido asociaciones que se han comprometido a participar. |
| Aitziberrek dio, eman behar den hurrengo urratsa helburuak, aukerak eta ibilbide-orria zehaztea dela eta horretarako lan saio bat antolatuko dela. 2019ko Maiatzaren 14an egingo da, 10:30tan Topalekuan. Enpresa profesional batek zuzenduko du bi orduko lan saioa taldearen oinarriak argitzeko. Bileran Lkalearen arduradunak egongo dira (Eva Salaberria eta Almudena Esteberena), Aitziber San Roman eta lantaldean parte-hartzeko izena eman duten elkarteak. | Comenta que, para abordar el siguiente paso, la definición de expectativas, objetivos y hoja de ruta se va a realizar una sesión de trabajo. El 14 de Mayo de 2019 a las 10:30 h. se realizará en Topalekua una sesión de dos horas dinamizada por una empresa profesional para asentar las bases del grupo. En la reunión participarán las responsables de Lkaleak (Eva Salaberria y Almudena Esteberena), Aitziber San Román y todos aquellas asociaciones que se han comprometido a participar. |
| Bakardadeko lantaldean izena emateko epea aste | El plazo para apuntarse al grupo de trabajo de la |

| | |
|---|---|
| batez luzatuko da parte hartu nahi duten beste elkarte batzuei aukera emateko.<br><br>Aitziberrek dioenez, bakardadearen lantaldeko bileraren informazio zehatza parte hartuko duten elkarteei zuzenean bidaliko zaie.<br><br>**6.- Galde-eskeak**<br><br>Ez da galdera edota eskari berririk egn.<br><br>Bilera 13.15etan bukatu da.<br><br>**Donostian, 2019ko Apirilaren 30ean.** | soledad se ha ampliado en una semana para facilitar que otras asociaciones formen parte del equipo.<br><br>En cuanto a la información concreta de la reunión de trabajo, Aitziber comenta que se les enviará la información a las asociaciones vayan a participar en el grupo de trabajo de la soledad en las personas mayores.<br><br>**6.- Ruegos y preguntas**<br><br>No hay ruegos ni preguntas.<br><br>La reunión concluye a las 13:15h.<br><br>**En Donostia, a 30 de Abril de 2019** |